

Bajo de la Campana.

San Javier-ko kostaldean parean, Grosa uhartetik gertu, 24 metroko sakoneratik gorantz altxatzen da Bajo de la Campana izenaz ezagutzen duguna. Luzaroan hondoratze ugariren kausa izan da, itsasoan aztarnak uzten dituzten tragediak, denbora pasa ostean euren istorioa kontatzen dutenak. Orain, urpeko arkeologoen soka eta etiketak dira ipuin zahar hau ulertzeko lehenengo urratsak.

Bajo de la Campana-ko aztarnategia 1950 hamarkadan aurkitu zuten hondoratzeetan pilatutako txatarra bila zebiltzan murgilari batzuek. 1970 hamarkadan egin ziren arkeologia kanpaina ezberdinetan inskripzio feniziarrek zituzten 13 elefante letagin izan ziren aurkikuntza nabarmenena. 1988an, urpeko ikerketa labor bati esker, inguru honetan antzinako hiru hondoratze zirela egiaztatu zen. Eta ordutik, Bajo de la Campanan ez ziren gehiago iraganeko hautsak arrotu, 2007. urtera arte.

Orain, esku adituek jakinduriaren bidea garbitzen dute. Organismo epifitoak kentzen dituzte, baina, benetan, denbora da baztertzen dutena.

Lan gogorra da. Urteetan zehar leherketak egin dituzte leku honetan, ontziek uharriekin topo egin ez zezaten. Arrokkak aztarnen gainean erori ziren, eta piezaren bat apurtu edo estali bazuten ere, diru-gose eta ebasteetatik ere babestu zituzten. Mineral lingoteak, anforak, labanak, ontziak, orraziak, ispiluak, pinaziak eta pistatxoak.

Orain plastikoa eta lokatza ondare historikoa babesteko elkartzen dira. Piezak lehorrera eraman behar dira, han euren istorioa eta eraiki zituzten eskuena kontatuko dute.

Horregatik, euren baitan gordetzen duten bizitza dela eta, ikerlariek kontu handiz zaintzen dituzte aurkikuntzak.

Baina lehenengo, aurkitu eta dokumentatu egin behar dira. Hemen, itsasontzien jokoak asmatzen da berriz, eta zientziaren joko taulan zentzu literal eta sakona eskuratzen du. Hizki eta zenbakiak dira iraganaren topografia zehatz eta argia.

Eta bi bider bi metroko lauki horietako batzuetan, lan zehatzaren errutina alaitasun eta harridura bihurtzen da.

Orduan, xurgatze mahukak ez du balio. Harea kontuz eta jakinduriarekin baztertu behar da.

Aztarnategian aurkitutako piezen artean, orain gutxi 15 elefante letagin atera dira, 1970 hamarkadan ateratako beste hamahiruei gehitzen dizkiegunak. Batzuek inskripzio feniziarrek zituzte zizelkatuta, eta hau gutxi balitz, Afrika iparraldean bizi izan zen desagertutako elefante espezie batenak dira. Baina hemen, itsas hondoran, ez dago ia emoziorako astirik, azken txanpa bete behar da, zehaztasunez eta akatsik gabe. Bidea luzea izan da, K.a. VII. mendetik Itsaspeko Arkeologia Museo Nazionalera.